

## PRENTSA OHARRA

**BILBOKO UDAL TXISTULARI BANDAK BIHAR ASTEAZKENA EUSKALDUNA JAUREGIAN MUSIKA TRADIZIONALAREN KONTZERTUA ESKAINIKO DU BERE IZAERA XAHUENEAN**

- **Garikoitz Mendizabal, Bandako zuzendaria, Idoia Kareaga, Gorka Zabaleta eta Asier García Bandako kideek, Sorozabal, Ansorena eta González Bastida autore klasikoen obrak interpretatuko dituzte besteak beste**
- **Kontzertua Euskalduna Jauregian izango da, 20:00etan. Sarrera doakoa da**

**Bilbon, 2010eko otsailak 23.-** Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren menpeko Udal Txistulari Bandak **BIHAR, asteazkena 24**, bere udazken-neguko kontzertu zikloaren barruan, euskal doinuekin osatzen den formatu tradizionalako kontzertua eskainiko du. Hitzordua **20:00etan** Euskalduna Jauregiko **A3** aretoan izango da eta sarrera doakoa izango da edukiera bete arte.

Bilboko Udal Txistulari Bandak bere kontzertu zikloaren azken txanpari ekingo dio. Bihar asteazkena emango duen kontzertuan, euskal musika tradizionala gogoko dutenek bere izaera xahuenean gozatu ahal izango dute **Garikoitz Mendizabal** (zuzendaria eta lehen txistua), **Idoia Kareaga** (bigarren txistua), **Gorka Zabaleta** (silbotea) eta **Asier García** (atabal- perkusioa) bandako kideen bertutezko emankizuna. Okasio honetan euskal erreperitorio klasikoko autoreen obrak interpretatuko dituzte, hala nola, **Isidro Ansorenaren** 'Euskal bilera'; **Pablo Sorozabalen** 'Batelarien zortzikoa'; **José María González Bastidaren** 'Tríptico' eta **Pepe Andoain** goitzenenez ezagutzen den José Sáenz Garmendiaren 'Bakartegia' eta 'Alaiak izan ginen'. Ikuskizuna **Timoteo Urrengoetxearen** 'Atxuri' obrarekin; **José María Usandizagaren** 'Mendi Mendiyan' eta **Karmelo Ibarzabalen** 'Rapsodia de aires vascos' obren interpretazioarekin osatuko da.

Eta martxoan jadanik, kontzertu zikloa bi emankizun berezirekin amaituko da. Lehenengoa, martxoak 17an, Udal Txistularien Banda zenbait bakarlarirekin arituko da: Mariano Santamaría pianoan, Esther Escalza, biolontxelotan eta Jorge Ripoll, fagotean. Eta denboraldiari amaiera ezin hobea emateko, Naroa Intxausti sopranoa eta Angel Unzu gitarra jolea arituko dira Bandarekin martxoaren 31an emango duten kontzertu berezian.

*Informazio gehiago:*

**PRENTSA KABINETEA**

**L&V COMUNICACION – Itziar Villamandos**

Kale Nagusia 81-3. solairua, 9. bulegoa, 48011 BILBO

Tel. 94 416 08 00 - Fax: 94 439 30 56

Sakelakoa: 657 796 583

[villamandos@lvcomunicacion.com](mailto:villamandos@lvcomunicacion.com)